

# Ipuinak, tabuekin hausteko

## María Reimóndez



Lugon jaio zen eta itzultzaile eta interpretatzailea da lanbidez. Argitaratu zuen lehen liburua *Moda Galega* (Edicións Positivas, 2002) da, eta 2003. urtean Vigoko Emakume Progresisten saria jaso zuen. Panorama literarioan sartu berri izanagatik ere, María Reimóndez 6 urte dituenetik idatzi du, gaztaroan sariak jaso zituen (Rúa Nova, Minerva), hainbat antzezlanen egile da eta errezitaldi poetikoetan parte hartu du.

**IMPLICADAS/OS NO DESENVOLVEMENTO** ([www.implicadas.org](http://www.implicadas.org)) Gobernu Kanpoko Erakundeko sortzaile eta lehendakaria da India eta Etiopian lanean diharduena 1998. urtetik aurrera, garapenerako prozesu integraletan dihardute genero bazterketa gainditzeko konpromiso argiarekin, garapen iraunkorrerako oinarri modura.

Halaber, María Reimóndez ere **ASOCIACIÓN GALEGA DE PROFESIONAIS DA TRADUCCIÓN E DA INTERPRETACIÓN** elkartereko sortzaile eta idazkaria da ([www.agpti.org](http://www.agpti.org)).

Bibliografia:

- *Moda Galega*, Edicións Positivas, 2002
- *O Caderno de Bitácora*, Edicións Positivas, 2004
- *Crónicas dende a India* (liburu digitala)  
<http://www.vieiros.com/welcometotiruchy.php>
- *Usha*, Finalista do Premio Merlín 2005, Edicións Xerais de Galicia, 2006
- *O Club da calceta*, Premio Xerais Sariko finalista 2005, Edicións Xerais de Galicia, 2006



# “O”<sup>1</sup>-ren totalitarismoa

María Reimóndez

Oh! Oh! Eta o! Nola izan zen prozesu hori? Galde egiten dugu. Ez dago erantzunik, gramatikoen arrazoiak baino ez, legatu honi erreparatuz, antza, Jainkoarengandik (o!)? Horrela, abstraktuki, ez dago ulertzerik. Arrazoiak askoz ere zabalagoak dira. Kontuak kontu, hala gertatu zen. O-k boterea hartu zuen (ehiztari zelako eta berau biltzaile izatea baino garrantzitsuagoa zela pentsatzeagatik, nomada bizimodua abandonatu izanagatik, kanpo-ependizea izateagatik... ene, hainbeste arrazoibide potentzial!). O-k lortu egin zuen. “Alfabetoa”-z hitz egiten dugunean, “a”, “e”, “i”, “o”, “u” ikasterakoan ere, “o”<sup>2</sup>-k ezarritako ordena urratu eta gidaritzara heldu da. Hiztegiek gurtu egiten dute. Gordetzeari gurtu. “A” tabu bilakarazi.

“O”-ren igoera bide misteriotsuetatik mugitu da baina inola ere bide aldaezinak. Kontuak kontu, “o”-k arrazoiaren jabe egitea pentsatu zuen. Baina, ezin. “O”-k kulturaren jabe egitea pentsatu. Baina, ezin. “O”-k adimen absolutuaren jabe egitea pentsatu. Baina, ezin. “O”-k naturaren jabe egitea pentsatu. Baina, ezin. “O”-k politikaren jabe egitea pentsatu. Baina, ezin. “O”-k bizitzaren jabe egitea ere pentsatu. Baina, ezin. “A”-ren erresistentziak egin zuen ezinezko.

---

1 Itzultzailearen oharra: galegoz genero maskulinoa adierazten duen adjektiboen desinentzia edota artikuluari egiten dio erreferentzia “o” horrek.

2 Itzultzailearen oharra: galegoz alfabetoaren letrek maskulinoz izendatzen dira.

Prozesu luze hau, eta zorionez, aldaketa garaian dena, hain denbora luzez iraun duen hizkuntzaren Estatu-kolpe honek, ondorio sozial ikaragarriak izan zituen. “O”-k totalitario guztien protagonismoa bildu zuen. Honela, oraindik ere, “o”-k ohore egin behar zaiola uste du. *Oraindik ere, eskolako eserlekuetan ehun neska eta bi mutil ditugunean, agurra “Arratsalde on guztioi”<sup>3</sup> izaten da.* “O”-k zentzu guzti-guztietan “a” muga dezakeela uste du, non jarri behar den esanez, baita haren lekua lapurtu ere. *Ginekologi-klinikan pazienteak<sup>4</sup> dira hizpide.* Berriro ere, “O”-k “a” bere zerbitzura dagoela uste du. *Semeez arduratzeagatik mailaz igo ez diren langileen gehiengoa emakumeak dira.* “O”-k uste du, “a”-k baino hobe dakiela zer nahi duen, zer pentsatzen duen eta zer desiratzen duen “a”-k berak; honi guztiari, “a” itzelezko misterioa dela gehitu behar zaio. *Erditu izan bazintut bezala ezagutzen zaitut –diotso “o” batek “a” bati–.* “A”-ren gorputz biribila, “o”-k uste du berea dela. *Hiztegi piktoriko batean “Gizona”-z hitz egiten den atalean, emakume baten gorputz biluzia ageri da.* Gainera, “o”-k erabaki zuen prestigiozko zenbait jarduera esleitzea erabaki zuen, eta “a”-ri utzi zizkion bakar-bakarrik inork nahi ez zituen jarduerak. *Zuzentzaile ortografikoak ez du ezagutzen “lavanderoi ‘garbitzaile’” hitza.*

Hala ere, “a” egoskorak ez du atzera egin. Erresistentzia baketsuan eginiko ekimen tematiak, hainbeste eta hainbeste emakumeren oinazeak, bazterketek eta . “A”, pertikaren bitartez, irain larregi horiei erantzuteko gai izan da. “A”-ren ametsa ez da amets leihakorra. Ez du azeri (arra) kentzeko asmorik, azeri (emea) jartzeko. Ez da leiha. “A”-k berdintasunarekin egiten du amets. Ikusgai izatearen eskubidearekin. (Andra) guztiok ikusgai eginarazi. Andra-gizonak gaudenean neutral izateko eskubidearekin (ikasleen artean, minusbaliak dituzten pertsonen artean, langileen artean, ama eta aiten artean). Hiztegitan “o”-ren aurretik agertzeko bere eskubide alfabetikoarekin egiten du amets (*xeitosa* ‘aproposa’, adjektibo femenino singularra). Tabu izateari uzten diola egiten du amets. Testu berri bati hasiera emateko, izenburu hauxe izango duena: “‘A’-ren ikusgaitasuna edo pertsonen berdintasuna”. Denbora luzez zain egon den justizia delako.

---

3 Itzultzailearen oharra: euskarak generoa markatzen ez badu ere, galegoz maskulinoa markaturik agertzen da.

4 Itzultzailearen oharra: euskarak generoa markatzen ez badu ere, galegoz maskulinoa markaturik agertzen da.